

## Intxaurrondo

# Gargardoz blai

Hilaren 3an bukatuko da Intxaurrondoko Gastronomia Astea. Hala ere, datozen egunotan izango da zer gozatua auzoan, izan ere, hilaren 7an Intxaurrondoko VII. Garagardo Azoka hasiko da.

Intxaurrondoko Gastronomia Elkarateak antolatzen du Garagardo Azoka, eta hilaren 17ra arte luzatuko da. Ohienez, marka ezagunen garagardoak dastatzeko aukera izango da bertan. Azokan parte hartuko duten garagardo etxe gehienak Alemaniakoak dira: Paulaner, Munchner, Beck's, Franziskaner, Diebezs, beste-

ak beste. Dena dela, beste herrialde batzuetako etxeak ere izango dira, hala nola, Ingalaterra, Espania, Australia, Irlanda eta Belgikakoak.

Oso garagardo preziatuek gozatuko dute gerturatutakoen aho sabaia, "Salvator" izenekoak, esaterako. Paulaner etxekoa, "Salvator"-ek garagardo perfektua izateko fama du adituen artean.

Bestelakorik ere izango da: John Smith's, Erresuma Batuko garagardo arrakastatsuenetakoa, Pilsner Urqueel duela 150 urte Txekian ekoizten hasi zena, eta abar.

### Autobus zerbitzu berezia

Kultura eta Turismo Ekin-tetxeak (KTE) Garagardo Azokara joateko autobus zerbitzua antolatu du. Autobusak KTEko egoitzatik irtengo dira egunero 18.00etan. Bi geldialdi egingo dira: Askatasunaren



Aurten ere hainbat eta hainbat garagardo etxeren garagardoak dastatu ahal izango dira Intxaurrondoko Ferian.

hiribidean eta Grosen, Vaca hanburgesa jatetxe aurrean, hain zuzen. Zerbitzua 23.30etan amaituko da. Beraz, azo-

kara jo nahi duenak, nahi adina garagardo edan ahal izango du, gehiegi kezkatu gabe. Hori bai, etxera buelta-

**Azokara joateko autobus zerbitzu berezia antolatu du KTEk**

*Parte Zaharreko pintxorik goxoenak!*

TABERNA  
  
**MARTINEZ**

Mota guztietako pintxo hotzak eta beroak

Abuztuaren 31 kalea 13  
 Tel.: (943) 424965

**GANBARA**  
 taberna • erretegia  
 San Jeronimo 21 - Tel.: (943) 422575 - DONOSTIA

**ZERUKO**  
 taberna jatetxea  
 pintxoak, kaxuelitak eta olagarroa. Eguneroko menua: (eguerdian eta gauean)  
 Arrandegi kalea 10, Tel.: 943 42 34 51

**TXALUPA**  
 TABERNA JATETXEA  
 Fermin Calbeton 3  
 Tel.: (943) 429875

**SPORT** taberna  
*Kafeetan parerik ez!*  
 Fermin Calbeton